

Harkaitz Canok “Twist” nobela kaleratu berri du Susa argitaletxearen eskutik. Ertz ugariko nobela da “Twist”, 80ko hamarkadako politikagintzan eta kulturgintzan bizi zen giroaren isla, lagun batzuen bizipenen begietatik. Orduko errealitatearen zantzuak fikzioarekin nahasten dituen arnasa luzeko lana, denboraren joanean pertsonen kontraesanak, minak eta zorion uneak agerian uzten dituen.

«'Twist'-ekin neure buruari joaten uztearen indar magnetiko edo tentazio horretan erori naiz»

Texto: **Oier Guilan**
Fotografía: **Conny Beyreuther**

HARKAITZ CANO

TWISTJOCKEYAREN OFIZIOA



Harkaitz Canoren ibilbidea jarraitu duen irakurleak bere lanetan sakabanaturik ezagututako ezaugarriak topatzen ahal ditu “Twist” liburuan: umorea, hitz jokoa, ametsen mundura gerturatzen den ukitu surrealista, arteari buruzko gogoetak, erreferentzia ugariak, testuinguru politiko gertukoa... Elkarrizketa honetan ibilbide horren gakoetan murgilduz egin nahi izan dugu nobela berrira doan bidea, nola ez, “Twist”-en eszenatokia ere baden Donostian: egileak postaletako irudi mortuak baztertuz sortu duen hiri literarioaren magalean.

Poesiaren bidetik ezagutu zintugun (“Kea behelainopean bezala”, Susa, 1994), baina idazletzan istorioak kontatzean datza zure magia, baita poesia egiten duzunean ere. «Poeta» etiketa zama egin zaizu inoiz?

Aurreneko liburuak agian asko markatzen du; egia da behin poeta bezala plazaratzen bazara, horren uhin espantsiboa oso zabala dela. Gero izan naiz horretaz kontziente. Nolabait kasualitatea izan zen aurrenekoa poema liburua izatea, garai hartan nire genero kuttuna dagoeneko ipuina baitzen. Askotan gertatu zait poema bat idatzi, eta erdibidean edo bukaerara heltean, pentsatzea: hau ipuin bat da, zer ari naiz poema bat idazten?. Aspaldi honetan poema gutxi idazten ditut, narratzaileak gain hartu dio poetari alde horretatik. Bestetik, formatua oso gauza likidoa iruditu izan zait beti, ez zait gehiegi inporta. “Belarraren ahoa”, adibidez, nobela laburra zela esaten nuen nik, beste batzuek ipuin luzea zela; halako batean, irakurle solasaldi batean norbaitek esan zidan «ez, ekibokatua zaude, zuk ez dakizu, baina ‘Belarraren ahoa’ poema luze bat da», eta bai, izan liteke.

“Zinema eta literatura” liburuan landu zenituen gaien artean zegoen telesailena, berriki Txalapartaren “Telezailak” liburu kolektiboan gehiago sakondu duzu horretan. Funtsean, kontatzearen eta istorioak eraikitzearen lilurak harrapatzen zaitu, datorren lekutik datorrela ere?

Bai, nik harrapatu izan banu Cinexin bat eta Donald bikoizten hasi, edo harrapatu izan banu txotxongilo bat eta hurrekin liluratu, ba horretara dedikatuko nintzen, nik uste. Istorioen kontagintza da zentrala. Telesailenak adibidez inbidia handia ematen dit. Zenbat talentu eta jende on dabilen telesail batez ere anglosaxoietan. Iruditzen zait, gainera, paradigma berririk baldin badago gaur egun hor daudela: barkamena eskatzeko modu berriak, mendekuaren kontzepzioaren aldaketa... garai bateko western epikoak edo zinema amerikar independenteak ez zeuzkan mekanismoak dauzka orain telesailak. Alde horretatik,

momentu honetan niretzat abangoardia da, gizartearen eta araudien aurretik doalako haien fikzioa.

Errezitaldietan, hitzaldietan, ahozkoan oro har eroso ikusten zaizu. Kontatzearen barruan sartzen da hori ere?

Hori ikasten joan naizen zerbait izan da, neurri handi batean irratian hasi izanaren poderioz. Lehenengo liburuarekin batera, “Goizean Behin” saioan hasi nintzen kolaboratzen, duela ia hogeitun urte. Nik fede handia daukat lotsatiengan; norbaitek esaten zuen lotsatiek mundua aldatuko luketela utziko baliote, eta ni kasta horretakoa naiz. Egia da aukeratzen duzun ofizioak moldatu egiten zaituela; moldaketa horren parte izan da ahozkotasuna. Hasieran errezitaldiekin sufritzen duzun bezala, iristen da momentu bat zeinean gozatu egiten duzun. Nahiz eta errezitatzen duzun poema hori idatzita egon, ahozkoan beti da diferente eta beti dago inprobisatzeko momentutxo bat. Horrelakoetan proban jartzen duzu poema, testu batzuk behin irakurri jende aurrean eta hor geratzen dira ez dutelako funtzionatzen. Liburua ere hor geratzen da, poema anbarrean sartutako zomorro bat balitz bezala, baina poema zerbait biziduna da eta gauzak gertatzen zaizkio denboraren poderioz. Poemen kotizazioa oso bariablea da, espresio itsusi bat erabiltzeagatik, eta hori oso gauza polita da. Garai batean maitemindua zinen poema batekin, baina orain ez; besteen testuekin ulertzen duzu hori, baina zeure buruarekin bitxiagoa da.

Idazlearena definizioz bakarkako lana da. Zu ezagutu zaitugu beste esparru batzuetan, proiektu berrienak aipatzearren “Act of God” ikuskizuna eta “Helduentzako ipuinak” artista liburua adibidez, azken hau Dora Salazar eta Joserra Senperenarekin batera. Noiz du idazleak bere bakartasuna apurtzeko beharra?

Hau ere ofizioarekin lotuko nuke. Idazle ofizioak adaradura asko ditu; ez dakit beti horrela izan den, baina gaur egun egia da liburuek ez daukatela pisu zentrala idazle guztietan. Askotan diru premiak, edo adiskidetasunak, edo esperimentatzeko gogoak behartutako kolaborazioak sortzen dira. Horiek beste baten interes, gogo eta irrikekin akordio bat izatera derrigortzen zaituzte eta hori oso interesgarria da, zu bakarrik iritsiko ez zinatekeen lekuetara eramaten zaituelako. Niretzako gure profesioko gauzarik politenetakoa da espero izango ez zenukeen lurralde edo leku batera iristea, horrek ere zuk profesioarekiko zenuen ikuspegia eta bokazioa aldatzen duelako. Hori ez dut bizi izan inoiz karga bat bezala, baizik eta bokazioaren moldagarritasunaren zantzu bat bezala. Zuk idazteko bokazioa duzu, eta hemezortzi urterekin pentsatzen duzu



«Bereziki pozik nago orrialde zoriontsuekin, lagun hauen arteko istorio, zirto eta umorez konpartitzen zituzten une horiekin. Asko disfrutatu dut zoriona islatzen, fikzioan beti iruditu zaidalako gauza zaila, ia-ia Donostia literario bat sortzea bezain zaila»

nobelak eta liburuak eta poemak idatziko dituzula; gero konturatzen zara bokazioaren adarkadura batetik komiki baterako bidaia egitearekin gozatzen duzula nobela batekin adina edo gehiago. Nahiz eta gero aparatu kritikoak ignoratu egiten duen lan hori, niretzako oso deigarria da. Beti hitz egiten da kanonaz, eta kanona beti da nobela, ahal bada mardula. Kritika ez da inoiz arduratzen bazterrean eta saihetsean dauden gauza horietaz, eta agian hor daude benetan aldaketa, esperimentazioa, gauza berriak... errezitaldi batean edo komiki batean. Deigarria egin zait hori, zure bokazioa mutantea da, baina aparatu kritikoak ez du dektatzen, ez diote arreta asko jartzen.

Ukitu zoro eta jostagarria dute “Helduentzako ipuinak” liburuko testuek. Zer du hitzak plastikotik, lanerako elementu zurruna da literatura?

Testu hauek ez ziren existituko Dora Salazarren lana gabe, nahiz eta testuetako asko Doraren lanetik asko urruntzen diren. Bere lana tranpolin bat izan da, pirueta bat egiten da hain zuzen ere esperimentazioaren bidetik. Egin nitzakeen ipuin klasiko batzuk, baina erabaki nuen hortik ez jotzea. Nik momentu horretan baneukan Interneteko idaztankera lapurtuarekiko kezka, Test Jockey izendatzen dut neure burua liburuan. Testuaren ekologia zen momentu horretan nire obsesioa, gaur egun dagoen testu masa ikaragarri horretan, existitzen diren testuei testuinguru berri bat ematea ere ez ote den idazlearen funtzioa: hartu, lapurtu, birkokatu adibidez Interneten bazterrean dagoen testu bat. Interneten filtroak falta dira, editoreak. Hori da Interneten gauzarik politena, “Mad max” momentu bat ikusten dut. Hemendik hamar-hamabost urtera etorriko dira ziber-lurralde antolamendua egiten duten espekulatzailak eta auzoak muntatu eta antolatuko dituzte. Adibidez, ‘harakina izateko kurtso bat korrespondentziaz’ topatu nuen Interneten kasualitatez, haren indizeari titulua jarrita testuingurua aldatu nion, orain jendaurrean irakurtzen dudanean oso ondo funtzionatzen du. “Helduentzako ipuinak” liburuan saiakera hori egin nuen: badaude Wikipediatik hartutako testuak, Wikipediatik hartutakoak direla diodan testuak nahiz eta ez diren, besteei aitortu gabe lapurtutako testuak... autoretzaren birrintze bat ere badago.

“Helduentzako ipuinak” bezalako proiektuak gurean ez dira oso ohikoak. Faltan botatzen duzu beste era bateko bizitza kultural bat, zeinean arteari buruzko eztabaidak (eta ez diskusioak) sor daitezkeen, edo proiektuetan arriskuak hartu...

Hemen iruditzen zait eztabaidak askotan oso domestikoak direla; sari hau dela, ez dakit zer dela... iruditzen

zait aldaketa eta belozidade handiko garai bat bizi dugula. “Twist” idazterakoan 1983an murgilduta egon naizelarik ikusi dut gauza asko goitik behera aldatu direla, gehienak onerako, baina iruditzen zait ez dagoela horri buruzko eztabaidarik. Europako kultura humanista pikutara joaten da, zure oinen azpian daukazun zorua kentzen dizute, baina gu ari gara eztabaidatzen ze oinarri jarri behar diren halako sariketan... ulertzen ditut eztabaida horiek, baina ez dira printzipala. Askotan gauza akzesorioak jartzen ditugu aurrean, bestetik oso posmodernoa den kontua: orain ilarrak dira plater printzipala eta solomoa eta patatak laguntzailea. Nik uste dut ez dugula tronpatu behar, gure jarrera izan behar dela egitearena. Igual kexatiak gara, berdin da, zer egin dezakegu daukagunarekin? Ez ote da kexu hori talentu edo segurtasun faltaren koartada? Egin, egin eta gainera egiten duzunean arriskatuz. Egia da klimak ez zaituela gonbidatzen gauza estrainioak egitera edo gehiegi arriskatzera, baina bestela hondamendira goaz eta ez dakit kontzienteak garen horretaz.

Murgil gaitzezen zure nobela berrian. 430 orrialde inguru dituela zabaldu zenean irakurle askoren artean entzun dut, umorez noski, lehenago beti entzun izan zaituztela nobelak laburrak izan behar direla aldarrikatzen...

Eta jarraitzen dut aldarrikatzen. Oraindik ere generoetan kutun bat aukeratu beharko banu, ipuinaren alde joko nuke, baina uste dut liburu bakoitzak eramaten zaituela liburu hori idazteko modu bat topatzen saiatzera. Orain arte istorioek gauzak modu jakin batean antolatzen eramaten ninduten, gehiegi luzatzen ez zitzaidana. Oraingoan modu erabat naturalean luzatzen joan da, adarkadura asko ateratzen joan zaizkio hasieran pentsatzen ez nuen bezala. Hori ere bada gure ogibide honen alde polita, Orson Wellesek pelikula bat egiten zuenean, istorio hori kontatzeko modu bat asmatzen zuen, eta modu horrek pelikula hori kontatzeko balio zuen bakarrik. Nobela honetan topatu dudana modua hori izan da, espiral bat bezala hazten joan den istorio bat. Pertsonaia berriak sortzen joan dira, batzuk gustatu zaizkit eta arduratu naiz haietat. Zortzi ataletan dago banatuta liburuak, ez nuke esango autonomoak direla, inondik ere, baina batzuek pieza separatu bezala funtzionatu dezakete. Alde horretatik, badago lehengo nire gauzak egiteko modura hurbiltze bat, nahiz eta hemen kontatzeko modua errepikakorra den, obsesiboa, nobela bildu, inguratu edo blaitu egiten duena. Ulertzen eta enpatizatzen hasi naiz nobela luzeak egiten dituztenekin, pixka bat Zelig bezala, hau da, egoten banaiz pintore batekin sinpatizatzen dut haren kausarekin, koloreekin, egi-



teko moduarekin eta bere alde jartzen naiz. Orain nobela luzeak idazten dituztenak ulertzen hasi naiz. Poemagintzan ale luzeak atera izan zaizkit, nire pultsio naturala alde horretatik formalki neure burua joaten uztea izan da. Liburu honetan plazer hori deskubritu dut, hain zuzen ere, zeure buruari joaten uztearen indar magnetiko edo tentazio horretan erori naiz.

Idazlearen ibilbidea nobelaren kanonaren arabera neurtzen ohitu garela aipatu duzu, “Twist”-en aurkezpenean aipatu zenuen «nire generoa ipuingintza da, baina luzatu egin zait». Zeintzuk izan dira lan gakoak zure ibilbidean?

Ibaiaren alde batetik bestera pasatzeko harriak aukeratu beharko banitu, eta harriak liburuak balira, esango nuke “Norbait dabil sute eskaileran” eta “Neguko zirkua” direla. Hala ere, bi horiekin ez nintzateke iritsiko beste aldera, salto handia eman beharko nuke, beraz “Belarraren ahoa” ere aipatuko nuke suposatu zuenagatik, espero ez nuen ibilbidea egin duelako itzulpenekin... hiru horiek gakoa dira “Twist” honetara heltzeko. Ortodoxia horretatik kanpo, “Piztia otzanak” albuma ere aipatuko nuke. Tintinen formatuko album

bat egiten duzu eta ematen du haurrentzat ari zarela, hemen oso trogloditak gara horrekin, baina niretzako “Piztia otzanak”-en bertan badago doblearen gaia eta “Twist”-eko hainbat kontu klabe ere.

8oko hamarkadako kulturgintza, politika, gizarte, harreman motak, paisaiak.... Garaia eszenatokia da ala paraleloki gaurkora gerturatzeiko urruntze ariketa?

Inkontzienteki agian bigarrena izan da. Niretzako 8oko hamarkada da bost urte nituenetik hamasei urtera bizi izandakoa, nire disko gogorra formateatu zen garaia. 90ekoa, berriz, mundura esnatzea eta gauzez konturatzea izan zen, zaletasunak eta erabakirik garrantzitsuenak hartu nituen garaia. Badago horrelako kontu kitatze bat 8oko hamarkadarekin, konturatzea ere bai zenbat aldatu diren gauzak, kaleen paisaia, iluminazioa, erakusleihoak... bada harekiko lotura sentimentala beraz, orain arte aski kontatuak izan ez diren gauzak kontatzeko nahia. Horrekin batera konturatzen zara adibidez 1983. urtean diskurtsoa askoz ausartagoa zela, politikoki kastrazio bat egon dela zuzena zer den eta zer ez den erabakitzerakoan. Duela

«Idazle profesioko gauzarik politenetakoa da espero izango ez zenukeen leku batera iristea, horrek profesioarekiko zenuen ikuspegia eta bokazioa aldatzen duelako»



hogeita bost urte momentua askoz gordinagoa eta gorragoa zen baina diskurtsoa elaboratuagoa. Garai hartako periodikoak irakurtzean deigarria egin zait egun asko kimatu dela esan daitekeenaren neurria, gaur berehala azalduko zaizkizu hainbat erakunde ofenditu. Horrekin batera deigarria da nola transformatu den hainbat jende, esaten zutenaren kontra hitz egiten dutelarik ez zaie masailik gorritu, oso esplendidoak jartzen gara derrepente lehen ginenaren kontra edo gaur egun gu ginena direnen kontra eginez, oso mizkinak garen sentsazioa daukat.

Zure inguru gertua baliatu duzu oraingo honetan “Twist” kokatzeko, pertsonaien garapenarekin batera agertuko zaizkigu gaurko eta atzoko Donostia. Bi denbora linea ezberdinetan bizi izan zara batera aldi berean liburua idazteko?

Bai. Ni 88-89an etorri nintzen Donostiara bizitzera, eta orduko hiri hura aldatuta dago. Donostian asko amorratzen nauen zerbait da, hain zuzen ere, bada-goela giroen eta lekuen ablazio halako bat. Giroen preserbantzia erabat utzi da, joaten zara Europako edozein hiritara eta ikusten dituzu aulki eta mahai

HARKAITZ CANO

Nire hautua izan da oso oihartzun zehatzak sortzea irakurlearen baitan, oso argi utziz baita ere fikzioa dela. Beharbada hor dago zailtasuna eta ez dakit lortu dudan, baina nire asmoa zen fikziozko pertsonaia batzuk sortzea, ezagutu ditugun edo ez ditugun hainbaten nahasketa direnak, eta horiek jartzea benetan gertatu diren edo nola gertatu diren badakigun edo susmatzen dugun gertaera batzuen aurrean. Hori da fikzioaren ispilu deformantea, fikziozko pertsonaiak jartzea 80ko hamarkadako benetako gertaera batzuetan. Aukera bat izan zitekeen kronika bat egitea, baina ni ez naiz kazetaria eta ez dakit hori egiten. Argazki finkatzailearen funtzio hori nobelak egiten du dokumentalak eta kronikak baino hobeto, azken urteetako zinema dokumentalaren arrakasta fikzioaren armak dokumentalari txertatzean datza, hain zuzen ere.

Desagerpenaren katalogoa, ez zaizkit desagertzeko modu gehiago okurritzen. Hori izan da ibilbide orri garrantzitsua?

Badaude desagertzeko modu gehiago ere. Dudarik gabe hori izan da nobela biltzen duen likido amniotikoa, horretan saiatu naiz blaitzen dena. Batzuetan adarkatze peregrinoak dauzka liburuak eta horiek ere desagerpenaren kontzeptuan blaitzen saiatu naiz. Azalak ere hori adierazten du, bere burua desagerrarazten ari den pertsona, nola eta bere ahalmenekin, bere lurrunarekin.

Liburuaren aurkezpenean honakoa aipatu zenuen: «Sekula idatzi ditudan orrialde gordinenak eta zorionsuenak dira hauek».

Senak esaten didana da. Liburuan kontatzen diren gertaeretako batzuk oso gogorrak dira, baina gazte izan ziren eta batzuen kasuan gazte hil ziren pertsonaia batzuk agertzen diren heinean, gaztaroaren sumendi gune hori islatzen ere saiatu naiz. Gauza desatseginei aurre egiteko modu umoretsua –beraz inteligente– horri gorazarre egiten saiatu naiz. Badago sufrimendua, badaude gertaera gordinak, baina pozaren eta laguntasunaren aldeko kantu bat ere bai. Gidoigintzan bezala, ez dena zilegi da istorio bat gaizki hastea, okerrago segitzea eta are okerrago amaitzea. Iruditzen zait iluntasunean badagokigula teiltatuan leihotxo bat uztea argia sar dadin. Hori zaila izaten da, askotan pasarte tragikoek pisu gehiago hartzen dute, errazagoak dira idazten.

Alde honetatik bereziki pozik nago orrialde zorionsuekin, lagun hauen arteko istorio, zirto eta umorez konpartitzen zituzten une horiekin. Asko disfrutatu dut zoriona islatzen, fikzioan beti iruditu zaidalako gauza zaila, ia-ia Donostia literario bat sortzea bezain zaila.

«Donostian asko amorratzen nauen zerbait da, hain zuzen ere, badagoela giroen eta lekuen ablazio halako bat. Giroen preserbantzia erabat utzi da, joaten zara Europako edozein hiritara eta ikusten dituzu aulki eta mahai zaharrak, diferenteak ere bai taberna beraren barruan. Ez dute dena bota zaborretara zerbait faltsua eta imitaziozkoa ekartzeko. Erabateko utzikeria dago Donostian denarekin, bere burua erakutsi eta bere burua begiratu zale den hiri batean»